

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2021.

Joan den martxoaren 7an Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren Kontu Orokorraren fiskalizazio-txostena, 2021eko ekitaldiari buruzkoa, Kontsortzioaren beraren kontuek eta bere mendeko sozietate den Gipuzkoako Urak SAUren kontuek (aurrerantzean GUSA) osatzen dutena. Abenduaren 31n Kontsortzioaren jardun-eremuak 76 udalerrri besarkatzen ditu, 345.194 biztanlerekin.

2021eko ekitaldiko **urteko kontuei** dagokienez, Epaitegiak **aldeko iritzia** eman du, nahiz adierazi duen Kontsortzioarekin ondasunen erabilera-lagapenari buruzko emakida-akordioko konpromisoetatik eratorritako betebeharrak islatzeko sozietateak erregistratu dituen horniduren kalkuluan ez direla kontuan hartu horien finantza-eguneratzearen ondorioz sor daitezkeen doikuntzak, eta ez dagoela horiek eragindako ondorioen zenbatespenik.

Kontsortzioak eta sozietateak zuzentasunez bete dute beren jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duen lege-araudia 2021eko ekitaldian, nahiz unean uneko hainbat ez-betetze azaleratu diren GUSAn pertsonaleko eta kontratazioko ataletan; honela, bada, pertsonalari dagokionez ez dago behar besteko dokumentaziorik langile finkoen kontratazioan berdintasun- eta merezimendu-printzipioak bete direla egiaztatzeko, eta gainditu egin da 2020ko eta 2021eko ekitaldietan Estatuko aurrekontu orokorren legeek ezarritako birjarpen-tasa; eta kontratazio-arloari dagokionez, berriz, gastuak gauzatu dira dagokion kontratazio-prozedura izapidetu gabe.